

Teresa sorgina gaur iritsiko da

Zabaleta auzoko jaietan ekintza ugari egongo dira asteburuan



200 haur baino gehiago bertso kantari

Landaberi eta Sasoea ikastetxeetako 200 haur baino gehiagok parte hartu zuen astelehenean kultur etxean egin zen Ahozkotasanaren Jaialdian. Taldeka kantatu zituzten aurretik eskolan prestatutako bertso umoretsuak eta oso ondo pasa zuten aretoa leporaino bete zuten neska-mutil eta gurasoek. /4

Zabaleta auzoko lagunak jaietan daude. Asteartean hasi ziren eta jolas eta japoniar bonbekin ederki gozatu dute hurrek.

Atzo gainera, *Kukuka* antzerki eta dantza eskolako gaztekoen bisita izan zuten eta haien antzezlanak ikusi ahal izan ziren.

Sorginaren etorrera

Gaur, Teresa Sorgina etorriko da auzora jaiei hasiera emateko. Aurten, gainera, auzoko trikitilariak lagun izango ditu.

Baina sorgina iritsi aurretik ekintzak daude, antzerkia, haur-erentzako merienda eta *Porro* pailazoarekin txupinazoa.

Honetaz gain, 22:00etan, *Kukuka* antzerki eta dantza eskolakoek dantza garaikideko emanaldia eskainiko dute eta jarraian, *Xumela* abesbatzako kideek euren ahotsez disfrutatzeko aukera eskainiko dute.



Landaberriko LHko gaztetxoek antzerki lan desberdinak eskaini zituzten atzo.

Eta eguna amaitzeko, gauerdian *Itzartu* eta *Ahuen* musika taldeek kontzertua eskainiko dute.

Gozatzeko eguna

Bihar Joxe Migel Aranzadiren oroienezko eskoba eta mus

txapelketak jokatuko dira eta toka txapelketa ere izango da.

Arratsaldean, puzgarriak izango dira eta 19:00ak aldeira, "*Hipo eta Tomax*" pailazoen emanaldia.

Gauean, Ane Labakak, Xuxue Alberdik, Andoni Ota-

mendik eta Julio Sotok bertso saioa eskainiko dute. Gai jarzaile Unai Muñoa izango da.

Ostean, Gazte Rock Gaua izango da *Gaueko Itzalak*, *Eratu* eta talde sorpresa baten eskutik.

Denak baseritarrez

Igandea diana eta auzo garbiketa txapelketarekin hasiko da. Ez dira faltako ohiko bihurtu diren Landaberri ikastolako taldeen dantza erakustaldia, proba mistoa eta herri bazkaria.

Honetaz gain, bazkaldutako aurretik idi probak ikusteko aukera egongo da eta bazkalostearen, erromeria eta haur-erentzako herri kirolak.

Egun honetan baseritarrez janzteko gomendioa luzatu dute antolatzaileek.


Azkenik, azken trakarekin, Teresa sorgina hurrengo urtera arte agurtuko da. •

Txalapartaren hotsa Orian

Euskara ikastea ez da bakarrik aditzak eta deklinabideak lantzea, hizkuntza erabiltzea eta gure kultura ezagutzea ere bada.

Horregatik, Muntteri-AEK euskaltegiak hainbat ekintza egiten ditu ikasturtean zehar. Atzo, txalaparta ikastaroa izan zen.

Oria ibai ondoan egin ziren saioetan, ikasle eta irakasleek txalaparta jotzeko makilak nola hartu eta hainbat erritmo ikasi zituzten, hala nola, ttakuna, herrena edo hauek konbinatuz, sagardoaren deia. •



Muntteri-AEK euskaltegioko lagunek giro ederra izan zuten goizeko txalaparta saioan eta asko ikasi zuten instrumentu honetaz.

GIZARTEA /3

Rocioko erromeria Atsobakarreko parkean izango da igandean

KIROLA /5

Luken Carbayeda txirrindulariarekin solasean

KIROLA /6

Buruntzaldeko I. areto-futbol txapelketa jokatuko da

euskararen bideak



- Euskara agiriak
- EGA
- Hizkuntza profilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, behea • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863 lasarte@aek.org

ikasi euskara eman izena aek-n

Astriketa ofizialak eta titulu hainbatzuek www.aek.org

EUSKALTEGIAK
1, 4 eta 3 ORDUKO
HASTAPENAK, EUSKALTEGIA,
KASTARAK OH-LINE

BARNETEGIAK
EUSKARA ESKOLAK
EUSKARAZ BIZITZTEKO

Neure kabuz



Elkargurutzek

Urtero moduan, udaberri zaporeko maiatza joan berri zaigu. Hilabete benetan bizia izan da hau, intentsitate handikoa, hasierahasieratik aldarrikapena izan baita nagusi: langileek ekin zioten lasterketari lehenik, lekuko gorriari helduta; ikasle eta gazteak iritsi ziren jarraian, hainbat hiritan sistema hierarkizatu ofiziala errepresenta zezakeen oro zalantzan jartzera; eta, hauteskundeak tartean, kolorez jositako hilabete berri baten aurrean gaude orain, aldaketaren bidean, esperoan.

Udaberria birsortze garaia da, neguan lotarutakoak esnatu eta indarrak hartzekoa. Eta, hein batean, konparaketa polit bat planteatu daitekela uste dut honen eta aurtengo maiatzaren artean: indar berriz esnatu baikara orokorrean, Sol-eko asanbladetatik hasi, eta aspaldiko partez bozka demokratikoki emateko aukera izan duenaren kasura arte.

Gogoz eta irribarrez hartu dugu aldarrikapenaren lekukoa. Emoziok, Alternatibak planteatzeko desiraz eta etorkizun berri bat eriteko gogoz. Bideak antzak dira gainera, nahiz ez beti denon gustokoak. Madril eta Bartzelonako asanbladak protestari ekiteko modu berri eta masibo bat ere badela erakutsi digute, pankarta atzean utzita; edo Bilboko Areaztan twitterreko mezu batek munduari megafono bateko oihu altuenak baino lehenago bira ematen diola ikasi genuen.

Esperezia berritzaileen maiatza izan dugu hau, bada, 1968. urteko Paris hura gogoan. Udaberri usainduna, gainera, Pragak urte berean hartutako lore lurrin antzekoduna. Inposaketa ororen gaintetik, inteligentzia baita beti garaile. Eta kantuak dioen moduan, bide ezberdinetatik abiatuta ere, elkargurutzeari topatuko dugu elkar.

Taxdo Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Gorka

Zorionak Aitaxo, txokomarrubizko muxuak Aiora, Oier eta ama-txoren partetik.



Aitor

Zorionak, hiru muxu handi aita eta amaren partetik. Asko maite zaitugu!



Ibai

Zorionak zure 5. urtebetetzean! Muxu handi bat amaren eta aitaren partetik.



Gabi

Zorionak txapelduna, asko maite zaitugu



Nahia

Zorionak zure 8.urtebetzean! Zortzi muxu aita, ama eta Noraren partetik!



Iker

Zorionak Iker zure urtebetetze egunean. Muxu handi bat familiaren partetik.



Giro eta Ana

Zorionak zuen erretiroagatik, asko estimatzen zaituzten lagunen partetik.



Ane

Zorionak handitzen ari den gure etxeko txikiari. Gurasoak, Xabier eta Josu.



Izan

Zorionak txapeldun zure bigarren urtebetetzean! Familia osoaren partetik!

Telefonoak

Osasuna / Larrialdia

Osasun Zentroa ... 943 007960
 DYA ... 943 464622
 Gurutze Gorria ... 943 363953
 Udaltzainak ... 943 362442
 Ertzaintza ... 943 288888
 SOS Deiak ... 112

Udala

Erregistroa ... 943 376055
 Euskarako Zerbitzua ... 943 376184
 Kirolegia ... 943 376182
 Kulturetxea ... 943 376181
 Zerbitzu Sozialak ... 943 376179
 KIUB ... 943 361605
 Udal euskaltegia ... 943 361621
 Muntteri AEK euskaltegia ... 943 372863

Azoka txikia

Eskaientza inmobiliarioak

• Hernaniko alde zaharrean etxe berria salgai dago. Prezioa: 270.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakiak: 943 332 320 edo 685 369 952.

• Gela bakarreko atikoa alokairuan dago. Okendo plazan dago eta prezioa 600 euro hileko da. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 657 815 368.

• Mobil home bat salgai dago Olliten, Nafarroan. Interesatuak telefono zenbaki honetara deitu: 626 057 485.

Lan-eskaintzak

• Esperientziadun eta lan-taldeko ardura hartzeko prest dagoen kazetari bat behar da herri-aldizkari baterako. Taldeko ardura hartzeko prest dagoena. Interesaturik daudenak bidali kurrikuluma ttakun@ttakun.com helbidera edo deitu 943 371448 telefonora.

• Umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko emakume bat behar da. Lanaldia egunean 4 ordukoa izango lirateke. Harremanetan jartzeko telefono zenbakia: 606 400 596.

Lan-eskariak

• Neska arduratsua eskaientzen da adineko pertsonak eta haurrak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Harremanetarako telefono zenbakia: 648 905 003.

• Magisteritzan diplomatuak eskaientzen da ingeleseko klaseak emateko, DBH4 mailara arte. Harremanetarako telefono zenbakia: 660 465 247, Miren.

Bestelakoak

• Josteko makina pedaladuna, kendu edo etxetik atera nahi baduzu, gustora hartuko nuke. Harremanetan jartzeko telefono zenbakiak: 943 247613 edo 615 709117 Pilar

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrak.com
 www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Heriotzak

- Vicente Bisbarros Pardo, ekainaren 1ean 83 urte zituela.
- Juan José Martínez Gil, maiatzaren 30ean 75 urte zituela.
- Rufino Letamendia Iruretagoiena, maiatzaren 29an 44 urte zituela.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 3

Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
 Tel.: 943 361774

Larunbata, 4

Gil, Kale Nagusia 24
 Tel.: 943 361529

Igandea, 5

Gil, Kale Nagusia 24
 Tel.: 943 361529

Astelehena, 6

Gil, Kale Nagusia 24
 Tel.: 943 361529

Asteartea, 7

Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
 Tel.: 943 363549

Asteazkena, 8

Urbistondo, San Frantzisko 1
 Tel.: 943 366567

Osteguna, 9

Orue, Jaizkibel plaza 2
 Tel.: 943 362652

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
 Chula, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFako Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Ederki dantzatu zuten erromerian izan ziren herritar eta gonbidatuek iaz Andatza plazan. Aurten, Atsobakarreko parkean izango da.

Rocioko erromeria igandean

Aurten Atsobakarreko parkean egingo da andaluziarren jai

Seblante Andaluz elkar-teak ia bi hamarkada daramatza Lasarte-Orian Rocioko erromeria antolatu. Aurtengo edizioa igandean burutuko dute Atsobakarreko parkean, inguruko beste Andaluziako elkar-teekin batera.

Urtero bezala festa egun hau, goizeko 11:30ean hasiko da, Arantzazuko Amaren parrokiaren egingo den Rocio mezarekin.

Hau bukatuta, Rocioko birjina hartuta herriko kaleetatik prozesioa egingo dute Atsobakarreko parkeko zelaietaraino. Bertan ekintza ugari egingo dituzte egun osoan zehar.

Tortilla goxoenaren bila

Aurten berrikuntza bat dakar jaialdiaren egitarauak: lehenengo patata tortilla lehiaketa antolatuko dute, 13:30ean.

Bertan nahi duen orok parte hartzeko aukera izango du, etxean edo Seblante Andaluz elkartearen egindako tortilla aurkeztuz.

Honetaz gain, 14:00ak aldera, ohorezko ardo eskainiko zaie udal ordezkarietara eta gonbidatutako elkarteetako lehendakarietara.

Honen ostean, bakoitzak bere aldetik bazkaltzeko ordua izango da, eta 17:00etan elkartuko dira berriro, hainbat ekimenekin jaiari jarraipena emateko.

Dantza eta doinuak

Seblante Andaluzeko taldeek emanaldia eskainiko dute 17:00etan eta ondoren, 18:00etatik aurrera, sevillarrak dantzatzeko aukera izango da Rocioko musikarekin.

Patata tortilla lehiaketako irabazleek sari banaketa egingo da 20:00etan eta Rocioko Anaiartearen urdaiazpikoa zozketatu da ondoren.

Azkenik, herrira hurbilduko diren Andaluziako elkarte gutzietan bisita egingo die Rocioko Amak eta gutxi gorabehera gaueko 21:00etan Lasarte-Orian urtero egin ohi den Rocioko erromeria eta jai egunari amaiera emango zaioela adierazi dute antolatzaileek.

AKATSAK ZUZENTZEN

Sorgin Dantzako haurren zortzikoteko adinak oker zeuden

Lehenengo astelehenean, zortzigarren orrialdean argitaratu genuen Sorgin dantzako berriaren haurren zortzikotea 1999, 2000 eta 2001. urtean jaiotako gaztetxoek osatuko zutela jakinarazi bagenuen ere, okerreko informazioa eskaini genuen. Izan ere, haurren zortzikotea 1997, 1998 eta 1999. urtean jaiotako haurrek egongo baitira aurten.

Bide batez, antolatzaileek gogorazten dute, San Pedro egunean Oriatik dantzan atera nahi dutenak entseguetara joan behar direla eta hauek hurrengo asteartean, ekainaren 7an hasien direla. Hitzorduak, Landaberri BHIko patioan izango dira astearte eta ostegunetan 20:00etan hasita. •

UDALEKUAK

Txoko eta Kanpaldietako guraso bilerak

Udako txoko eta kanpaldietarako gutxi geratzen da eta hurrengo astean, ekainaren 9tik hasita, Manuel Lekuona kultur etxean ekimen desberdinetako programak azaltzeko guraso bilerak egingo dira.

Txikien, HH2-HH4 bitarteko haurren, guraso bilerak ekainaren 9an arratsaldeko 17:00etan euskaraz eta 17:45ean erdaraz izango da. HH5-LH2 haurren bilerak ere ekainaren 9an izango da, 18:30ean, euskaraz eta 19:15ean, erdaraz. LH3-LH6 mailako gaztetxoek bilerak ekainaren 10ean izango da arratsaldeko 17:45ean, euskaraz eta 19:00etan, erdaraz. Abuztuko txokoetako programazioaren berri ematea ere ekainaren 10ean izango da arratsaldeko 19:30ean.

Bestalde kanpaldietako bilerak honako hauek dira: Askizura doazen haurren gurasoak ekainaren 10ean arratsaldeko 17:00etan; Mendigorriara doazenenak ere ekainaren 10ean dute bilerak, baina arratsaldeko 18:45ean eta KTGko gaztetxoek ekainaren 17an arratsaldeko 18:00etan izango da. •

ASTE BERDEA 2011

Hondakin gabeko sukaldaritza jardunaldiak

Arduraz kontsumituta hondakin gutxiago sortzen da, horregatik Lasarte-Oriako Udalak antolatu duen Aste berdearen barruan, ekainaren 7an, arratsaldeko 19:00etan kultur etxean Kontsumo arduratsua hondakin gutxiago sortzeko eta dirua aurrezteko hitzaldia izango da Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Zuzendaritzaren eskutik.

Era berean, Hondakin gabeko sukaldaritza jardunaldiak ere antolatu dituzte Udaberri elkarteak. Ekainaren 8an, 19:00etan, Goiegi jatetxeko Juan Luis Eizmendi sukaldariak euskaraz Hondakin gabeko errezetak eskainiko ditu, hau da, hozkailuan ditugun janari hondakinekin egin daitezkeen errezetak. Eta ekainaren 9an, 19:00etan gazteleraz, Lurra XXI jatetxeko Jose Ramon Garzarainen txanda izango da.

Gogoratu jardunaldi hauetan parte hartu nahi duen orok aurrez izena eman beharko duela, plazak mugatuak baitira. Izena emateko eta informazio gehiago eskuratzeko 943 670 249 telefono zenbakira deitu beharko da.

Era berean, larunbata honetan, goizeko 10:00etatik 14:00etara, Dorre plazan Bigarren eskuko merkatua dagoela gogorazten da. •

KIROLA

Hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira Ostadarreko futbol taldeak

Ostadar Kirol fundazioko futbol taldeetako batzuk hurrengo denboraldia prestatzen hasi dira eta horregatik jokalariei entrenamendutara joateko deialdia egiten die elkarteak, baita talde hauetan jokatu nahi dutenei ere.

Alebin taldea, 2000. an jaiotako, ekainak 6an, astelehenean, eta ekainaren 8an, asteazkenean, 18:00etan du entrenamendua; infantil mutilek eta infantil neskek, 1998. eta 1999. urteetan jaiotako ere egun eta ordu berean dituzte saioak, hau da, ekainak 6an, astelehenean, eta ekainaren 8an, asteazkenean, 18:00etan; kadete mutilek, 1996. eta 1997. urteetan jaiotako, ordea, ekainak 7an, asteartean, eta ekainak 9an, ostegunetan, 18:00etan dituzte entrenamenduak eta jubenil mutilek, 1995, 1994 eta 1993. urteetan jaiotako, gaur, ostirala 18:30ean.

Entrenamendu hauek guztiak Michelingo Kirol Gunean egingo dira. •

Legazpiko Santikutz Abesbatzaren bisita

Alboka Abesbatzak gonbidatuta, Legazpiko Santikutz abesbatzak bihar, 19:30ean, Ama Brigitarren komentuan kontzertua eskainiko du.

Lasarte-Oriako abesbatzak urtean zehar egiten dituen elkartrukeen barruan kokatzen da emanaldi hau.

Legazpiko abesbatzak lehenengo zatian Purcell, Mozart eta Vivaldi musikari handien doinu sakroak entzungo dira eta bigarrenengan, berriz, euskal eta nazioarteko abestiak



Legazpiko Santikutz abesbatzaren bisita izango du Albokak bihar arratsaldean.

L'Harmonia de Valdoreix

Bestalde, lehenengo astean ere, L'Harmonia de Valdoreix abesbatza katalanaren bisita izan zuen herriko abesbatzak.

Ama Brigitarren komentuko kapera larunbatean bi abesbatzek kontzertua eskaini zuten.

Albokak anfitrioi bezala, Ennio Morriconearen La Mision filmeko Gabriel's oboe eta Junkal Guerreroren moldaketa den Mutil txaleko gorri abesti herrikoiarekin hasiera eman zion larunbateko emanaldiari.

Kataluniakoek abesti herrikoikiak, eliza doinuak eta egile euskaldunen lanak, Aurtxoa seaskan, esate baterako, eskaini zituzten. Eta kontzertuari amaiera emateko Albokarekin batera Uruñelaren Maitia nun zira abestu zuten. •



Landaberi eta Sasoeta ikastetxeetako neska mutilek umore onez kantatu zituzten aurretik eskolan prestatutako bertsoak. Gehienak mozorrotuta atera ziren oholntza gainera eta kultur etxean izan zirenek ondo pasa zuten.

Bertsoaren bidez ahozkotasuna lantzen

- Landaberi eta Sasoetan bertsolaritza ikasten diharduten haurrek kantatu zuten kultur etxean
- Eskolan taldeka prestatu zituzten aurretik bertsoak ■ Umeen Bertso Eskola sortu nahi dute

200 haur baino gehiagok parte hartu zuen aurreko astelehenean, urtero bezala kultur etxean, egin zen Ahozkotasunaren festan. Oholntza taldeka kantatu zituzten bertsoak elkarrekin prestatu zituzten aurretik eskolan, gehienak umoretsuak izan ziren eta ederki pasa zuten kultur etxea leporaino bete zuten neska-mutil eta gurasoek. 2004tik Bertsolaritza eskoletan erakusten ari den Unai Muñoren ustez Ahozkotasuna eta Bertsolaritzaren proiektua finkatuta dago eta ikasleetatik herrira hedatzea da orain erronka.

JON ALTUNA

Sasoeta-Zumaburu eta Landaberi ikastetxeetan Unai Muñoa bertsolaria-ekin bertsolaritza ikasten ari diren neska-mutilak kantatu zuten astelehenean kultur etxean zazpigarren Ahozkotasunaren jaialdian.

Bertsolaritzaren bidez ahozkotasuna lantzea helburu duen egitasmoa erabat egonkortuta dago Muñoa irakaslearen ustez, zazpigarren urtez jarraian garatu baitu ekimena Lasarte-Oriako bi ikastetxeetan. "Dena den, Udalaren babesik gabe eta ikastetxearen konpromisorik gabe ezingo zen aurrera eramanez proiektua" jakinarazi digu Unai Muñoak, bide batez Udalarari eta ikastetxei ematen duten laguntza horregatik eskerrak luzatuz.

Muñoaren ustez esperientzi oso positiboa da, "ikasle-txeekin harreman sendoa sortu dugu eta pausoak ematen ari gara. Ikusi dugu emai-

tza onak lortzen direla eta bertsolaritzak beste eremu batzuetan ere laguntzen diela neska-mutileri, besteak beste, hitzekin euskaraz jolasten, irudimena erabiltzen, diskurtsoak antolatzen eta garatzen, besteak beste, entzuten, jende aurrean kokatzen..."

Lasarte-Orian 200 haur baino gehiago ari dira bertsolaritza lantzen, eta proiektuak duen garrantziaren erakusgarri dira Gipuzkoan 9.000 eta Euskal Herri osoan 17.000 ikasle ari direla Bertsolaritza eta Ahozkotasuna jorratzen.

Bertso Eskola berriak

Bestalde, beste bi puntu ere nabarmendu ditu Unai Muñoa irakasle eta proiektuaren herrirako arduradunak. Batetik, azken hiru ikasturtetan egindako lanari esker, berriro Eskola orduz kanpoko Bertso Eskola sortu dela Lasarte-Orian, hau da, ikaslerik ez izatetik hiru talde osatuzera pasa dira: 25-30 neska-mutil inguru ari dira ikastetxetako bertso eskolan



200 haur inguruk kantatu zuten astelehenean Kultur Etxean Ahozkotasunaren jaialdian.

eta aurten lehen aldiz lortu da DBH mailan talde bat izatea.

Datorren ikasturteari begira, bestalde, Landaberi eta Sasoeta ikastetxetako Bertso Eskola hauek mantentzeaz gain, erronka nagusia herri mailako Umeen Bertso Eskola sortzea izango da, "benetan

bertsolaritzarekin tentatuta dauden ikasleak biltzeko asmoz" esan digu Muñoak.

Umorea nagusi jaialdian

Asteleheneko Ahozkotasunaren jaialdian, talde bakoitzak gai baten inguruko bertsoak prestatu zituen eta beste guz-

tien aurrean 10 bat minutuko saioa egin. Kantatu zuten talde gehienak mozorrotu egin ziren, umorea izan zen nagusi emanaldi osoan zehar eta oro har bertsoaldi bikainenak osatu zituzten.

Besteak beste, Xalbadorri egin zizkioten txistuak eta Jon Sarasuaren tongoa antzeztu zituzten, bertso jolas eta asmakizunak egin zituzten, eta haurrek beraien gustuko musika taldeen doinuekin egin zuten bertsoan, gustuko kantuei letrak aldatuz alegia. •

Lasarte-Orian 200 haur baino gehiago ari dira bertsolaritza lantzen, Gipuzkoan 9.000 eta Euskal Herri osoan 17.000.

Luken Carbayeda Txirrindularia

“Segurako giroa ikaragarria izan zen”

Gipuzkoako Txirrindulari sariketan txapela eskuratu du Luken Carbayeda lasarteoriatarrek

Seme asko dira gurasoen zaletasunak euren egin eta haien ibilbidea jarraitzen dutenak. Egungo futbolari profesional askoren gurasoak ere profesionalak izan ziren beste garai batzuetan. Eta hau ez da futboleak bakarrik gertatzen, beste hainbat kirolatan ere gertatzen da. Horren adibide hurbila Luken Carbayeda lasarteoriatar gaztea dugu. Bere aita, Xabier Carbayeda txirrindulari profesionala izan zen eta duela bi urte barneratu zen bera ere mundu honetan. Denbora gutxi darama lehiatzen, eta oso gaztea da oraindik, baina momentuz Gipuzkoako txapelkun izan da alebiren mailan, maiatzaren 14an Seguran jokatu zen txapelketan.

Itxaso MORENO

Luken Carbayeda Urruzola lasarteoriatarrek, 12 urte baditu ere, etorkizun handiko txirrindularia izan daitekeela erakutsi du. Txirrindularitza bi urte bakarrik daraman arren, maiatzaren 14an bere lehenengo titulu garrantzitsua eskuratu zuen, Gipuzkoako Txirrindularitza sariketan txapela eskuratu zuen alebin mailan.

Lehenik eta behin zorionak! Nola iritsi zinen Segurako finalera?

Sailkapen errondak egoten dira eta klasifikatzen bazara orduan finalera pasatzen zara. Sailkapen errondetan 80 txirrindulari parte hartu zuten eta

hauetatik 30 sailkatu ginen finalerako. Ni horien artean egotea pozgarria izan zen.

Zenbat kilometroko proba izan zen finalekoa?

Sei kilometro izan ziren gutxi gorabehera, normalean luzera horretakoak izaten dira alebiren kategoriarako prestatzen diren proba guztiak.

Hurrengo urtean Jubeniletara egingo dut salto eta orduan karrerak 6 kilometrokoak izateko, 18 kilometro inguru izatera pasako dira. Hor jada nabaritzen hasiko naiz zailtasuna, aldapa gehiago ere badago. Hala ere, esan beharra dago gure kategorian ere karrera batzuetan badirela aldapak eta adibidez, Gipuzkoako txapelketan, aldapak baziren ere oso ondo aritu nintzen.

Nola ikusi duzu zure burua Gipuzkoako txapelkun egin zaituen karrera honetan?

Ondo ikusi dut. Banekien jende onak parte hartuko zuela baina hala ere esperantza pittin bat baneukan. Izan ere, nire zonaldean proba batzuk irabazi ditut eta horrek esperantza hori handitu egiten zidan.

Orduan, guztiz ez zenuen espero?

Ez, baina urtea aurrera joan ahala esperantzak handitzen joan ziren.

Urte hasieran oso gutxi nintzen, baina lehen aipatu dudana bezala karrerak irabazteak nire animoak handitu zituen.

Banekien zaila izango zela,

baina aurten tokatu da eta irabazi egin dut.

Ze sentitu zenuen helmugatik lehenengo pasa zinenean?

Zarata ikaragarria zegoen metaren inguruan hurbiltzen ari nintzenean. Ikusleak ikaragarri ari ziren animatzen, baina karreraren zehar egindako ahaleginaren ondorioz, ez nintzen nire buruaren jabe, ez nintzen konturatzen. Kosta egin zitzaidan probako irabazlea ni nintzala sinestea. 30 parte hartzaileetatik, ni nintzen metan lehenengoa.

Hamar karreretatik, zortzi izan dira zuretzako...

Zortzi Gipuzkoako txapelketa irabazi nuenean. Orain jada beste bat korritu eta irabazle izan naiz. La karrera guztiak nireak izan dira.

Non mugitzen zara, non jokatzen dira karrera horiek?

Donostialdean antolatzen diren karreretan hartzen dut parte, Zumaian, Zarautzen...

Aldapak gustatzen zaizkizula komentatu duzu, non kokatzen duzu zure burua hobeto?

Oraindik ez dakit seguru. Orain zerbaitetan ondo ibiltzen bazara, ondo ibiltzen zara guztietan. Beraz, oraindik ez dut nire burua espezialitate batean kokatu.

Zertan gustatuko litzaizuke?

Esprintean ondo ibiltzen naiz eta asko gustatzen zait, beraz agian hor kokatuko nintzake.

Bazpi Txirrindulari eskolan zaude, noiz sartu zinen?

Nire aita eta lagun batek sortu zuten elkarte eta zaletasun hori sartu digu. Nire aita beti bizikletan ibili da, eta orain masajista da. Sortu zutenean

nire anaia eta ni hasi ginen joaten, jada bizpahiru urte pasa dira eta oso gustura gaude.

Eta garaipen ugari lortu dituzu...

Ez. Lehenengo urtean ez nuen asko entrenatu, beranduago hasi nintzen beste diziplinatan eta errepideko txirrindulariaren kategorian zehar egindako ahaleginaren ondorioz, ez nintzen nire buruaren jabe, ez nintzen konturatzen. Kosta egin zitzaidan probako irabazlea ni nintzala sinestea. 30 parte hartzaileetatik, ni nintzen metan lehenengoa.

Noiz entrenatzen duzu?

Astean behin entrenatzen dut normalean, neguan agian bitan, baina ez da normalena. Eta saio bakoitza ordu betekoa izan ohi da.

Nahikoa txapelkun izateko?

Egia da beste txirrindulari askok astean bitan egiten dituztela saioak, eta bakoitza ordu eta erdikoa, baina nik honekin nahikoa daukat.

Zaletasuna aitarengatik duzu?

Bai, dudarik gabe. Gainera aitaren aldetik hiru izeba-osa-ba bizikletan ibilitakoak dira. Familia ia osoa bizikleta munduan dabil. Aita Euskaltel-Euskadin eta osaba-izebak masajista bezala RadioShack taldean.

Aholkuak ematen dizkizute?

Asko. Hasieran lasai egoteko esaten zidaten, eraso ondoren non egin zitekeen, non eritimoa gutxitu... hala ere normalean nire kabuz hartzen ditut erabakiak.

Irabazi dituzun karreretatik zein izan da bereziena?

Gipuzkoako txapelketa dudarik gabe. Aurreko urtean 13. egin nuen eta jende ona ibiltzen zela ikusi. Eta aurten ni izan naiz garaile, pasada bat izan da. Jendearen berotasuna ere ikaragarria izan da. •





IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka

institutua@hernanibhi.com
www.hernanibhi.com

AURREMatrikula EPEA EKAINAREN 1etik 10era

HEZIKETA ZIKLOAK

ERDI MAILA

- Mekanizazioa
- Instalazio elektriko eta automatikoak
- Telekomunikazio instalazioak **berria**

GOI MAILA

- Fabrikazio mekanikako diseinua
- Sistema Elektroteknikoak eta automatizatuak
- Gizarte eta kultur animazioa **berria**

SARBIDE PROBA

- Goi mailako heziketa zikloetan sartzeko proba prestatzeko ikastaroa

HASIERAKO LANBIDE PRESTAKUNTZAKO PROGRAMAK

PCPI

- Mekanizazioko langilea **berria**
- Etxeko jardueretarako eta mendeko pertsonentzako oinarritzko zaintzetako laguntzailea

ESKAINITZA PARTZIALA

- Instalazio elektriko eta automatikoak: Hernani, Easo eta Usurbilen arteko plana

A. ITURRIAGA • Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 • Faxa: 943 552271 • 20120 HERNANI
K. LABAKA • Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 • Faxa: 943 330550 • 20120 HERNANI



Francisco Morales eta Jorge Revuelta eskuratutako dominekin. Arg.: Gorka Aristegi

Buruntzaldeko lehen areto-futbol txapelketa asteburuan

Lasarte-Oriaren izenean Izkiña tabernak parte hartuko du

Jorge Revuelta judoka, Gipuzkoako txapeldun

LOKEko erakuslehoak titulu, domina eta garaikurrez bete eta bete ari dira elkarteko judokak. Maiatzaren 16an, Hernanin, burutu zen alebin mailako Gipuzkoako Txapelketan herriko judoka gazteek "lan bikaina egin zuten" Gorka Aristegi entrenatzaileak adierazi digunez.

Haiei artean, nabarmentzekoak dira, 52 kilo azpiko mailan Jorge Revuelta gazte txoak eskuratutako urrezko domina eta Jone Arroyok

maila berdinenan lortutako brontzea.

Beterano maila

Bestetik, egun berean, Beteranoen Euskadiko Lehenengo Open-a egin zen Gasteizen.

Honetan, Francisco Moralesek, *Kikok*, urrezko domina lortu zuen bere mailan eta brontzeko, sailkapen orokorrean.

Honela, aipatzekoa da lehenengo aldiz, LOKE lehiaketako maila guztietan ordezkariek izan dituela.

Buruntzaldeko Udal Kirol Zerbitzuek eremuko lehenengo areto-futbol txapelketa antolatu dute, "herri txapelketetan partehar-tzaile ugari biltzen duen kirol hau" bultzatzeko.

Asteartean Usurbilgo udal aretoan egin zen aurkezpenean txapelketaren helburu hori eta honen nondik norakak azaldu zituzten Udaletan jardunean dauden kirol arduradunek, Usurbilgo Lontxo Zubiriak, Andoingo Fernando Narcisok eta Lasarte-Oriako Fernando Escoriaza kirol batzordeko lehendakariak.

Izkiña Lasarte-Oriatik

Andoingo Allurralde kiroldegian jokatuko da txapelketa: gaur, ekainaren 3an, 20:30etatik aurrera kanporaketak eta bihar, ekainaren 4an, 19:00etan finala.

Astearteko prentsaurrekoan azaldu zuten, Lasarte-Oria, Usurbil, Urnieta eta



Lasarte-Oriako, Usurbilgo eta Andoingo kirol zerbitzuetako ordezkariek aurkezpenean. Arg.: T.Valles

Andoingo areto-futbol taldeak parte hartuko dute lehiaketa honetan. Lasarte-Oriako ordezkarria *Izkiña* taberna izango da, Usurbilgoa *Makax* taldea, Andoingo *Ongi Etorri* taberna eta Urnieta *Elur* elektrizitatea.

Gauzak honela, gaur

20:30ean, Andoain eta Lasarte-Oriako taldeen arteko norgehiagoka jokatuko da eta 21:30ean, Urnieta eta Usurbilgoen artekoa.

Gaurko partiduetako irabazleek, arestian aipatu bezala, bihar, 19:00etan, jokatuko dute finala.

Kiroletako agenda

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 03

BURUNTZALDEKO I. TXAPELKETA

Allurralde kiroldegia, Andoainen
20:30ean, Andoain - Lasarte-Oria
21:30ean, Urnieta - Usurbil

Larunbata 04

MOSO OROIMENEZKO TXAPELKETA

Udal Kirol guneko areto-futbol pistan
10:00etan, Katakra - Lekuona Mena
11:00etan, IOB - Viña del Mar
12:00etan, Indaux - Ori kristaldegia

BURUNTZALDEKO I. TXAPELKETA

Allurralde kiroldegia, Andoainen
19:00etan, Finala

PILOTA

Ostirala 03

19:00etan, Intza - Allerru (Udaberri txapelketa, 4 t'erdian, eskuz bana, II. kadetea) Ibaeta, Donostian.
19:00etan, Intza - Añorga (Udaberri txapelketa, 4 t'erdian, eskuz bana, I. kadetea) Ibaeta, Donostian.

Larunbata 04

SAN PEDROTAKO TXAPELKETA

Loidi-Barreneko frontoian, 10:30ean
Benjaminak:
Ibai Izagirre eta Mikel Ibizate - Ibon Otxandorena eta Ibai Iribar
Iker Sarasola eta Iñaki Urruzola - Aitor

Igarriz eta Gorka Marcos

Alebin B, B taldea:

Unai Angiano eta Iker Hernandez - Gorka Aristorena eta Eneko Martin
Alebin A:
Adrian Apaolaza eta Noa Carretero - Julen Urruzola eta Axier Nogeira
Arotz Sarobe eta Jokin Rodriguez - Axier Urruzola eta Eneko Ortiz

Igandea 05

SAN PEDROTAKO TXAPELKETA

Loidi-Barreneko frontoian, 10:30ean
Kadete A:

Axier Arteaga eta Eneko Sarasola - Unai Urruzola eta Xabi Rekondo

Kadete B:

Iker Ipintza eta Iñigo Rodriguez - Aritz solano eta Iker Artetxe

Beteranoak:

Juan M^a Arteaga eta Juantxo Prieto - Xabi Exezarreta eta Migeltxo Aristegi
Peio Sarasola eta Jose Luis Urruzola - Jesus Presa eta Juan Luis Yeregi

PALA

XXX. SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barreneko frontoian

Ostirala 03

18:00ean, Xenki eta Mundo - Xabier Otaegi eta Egoitz Uzkudun

Astelehena 06

18:30ean, Aritz Bergara eta Josu Uzkudun - Goiko eta Azkona

19:30ean, Santi Martin eta Bernaitz Odriozola - Aitor eta Xabier Sarasua

Asteartea 07

18:30ean, Xabier Arteaga eta Beñat Esnaola - Xabi Exezarreta eta Mikel Bardaji
19:30ean, Jon eta Mikel Begiristain - Agustín Zubizarreta eta Iñaki Carretero

Asteazkena 08

18:30ean, Javi eta Gabriel - Iñaki Lizaso eta Joserra
19:30ean, Iñigo Arluziaga eta Jon Pello Artetxe - Eneko Urđanpilleta eta Unai Lizaso

Osteguna 09

18:30ean, Edu Jauregui eta Fran Ariztimuño - Jon Lizaso eta Txema Urruzola
19:30ean, Imanol eta Ander Bardaji - Xenki eta Mundo

SQUASH

HERRIKO TXAPELKETA

Kiroldegia, 18:00etatik aurrera
Ostirala 03

Txapelketaren fasea:

Agustin Erkizia - Iker Cañedo
Oswal Cañedo - Alberto Udabe

Astelehena 06

Kontsolazio fasea:

Ivan Sancho - Oinatz Iparragirre
Michel Zugasti - Xabier Amiano

Asteartea 07

Txapelketaren fasea:

Agustin Erkizia - Jon Linazisoro
Quinin Calvo - Oswal Cañedo

Asteazkena 08

Kontsolazio fasea:

Patxi Delgado - Xabier Linazisoro
Irati Agirre/Veronica Gonzalez - Iñaki Garcia/Emilio Hernandez

Osteguna 09

Txapelketaren fasea:

Iker Cañedo - Alberto Udabe
Oswal Cañedo - Agustin Erkizia

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 04

09:00ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrek Euskadiko erlojupeko txapelketa dute, Bergaran.

16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako kadeteek errepideko Gipuzkoako txapelketa dute, Zarautzen.

16:00etan, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako infantilek errepideko Elgoibarko Sarian parte hartuko dute.

Igandea 05

08:00etan, Ostadar K.F.-ko zikloturista taldeak Zumarragara egingo du irteera.
09:30ean, Buruntzazpi txirrindularitza eskolako juniorrek Euskadiko errepideko txapelketa den LXXVI Pentekostes Saria dute, Bergaran.

TRIATLOIA

Larunbata 04

16:00etan, herritar talde batek Ondarroako Triatloian parte hartuko du.

ATLETISMO

Larunbata 04

Egun osoa, LOKEko Irati Larrañaga euskadiko selekzioarekin parte hartuko du Kantabriko Jokoetan, Lugon.

16:30ean, herriko atleten maila absolutuko Gipuzkoako txapelketako jardunaldia dute, Ordizian.

Igandea 05

10:00etan, herriko atleten maila absolutuko Gipuzkoako txapelketako jardunaldia dute, Donostian.

10:00etan, herritar talde batek Ereñotzuko I. Mendi lasterketan parte hartuko du.

BOLA-JOKOA

Igandea 05

Goiza osoa, Ostadarreko bola-joko taldeak Euskadiko txapelketa du, Legazpin.

ESKOLA KIROLA

Ostirala 03

15:00etatik aurrera, Landaberri BHI ko gazteek Eskola Kirola jaialdia izango dute KTGo gazteekin batera, Loidi Barreneko pilotalekuan.

Ostirala, 3

Bakarrizketa

ÑAKO aktoreak " De lo malo malo" lana eskainiko du. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Larunbata, 4

Kontzertua

1 DE 500EN emanaldia, Hip-Hop, Soul, Funky... Trumoi tabernan, gaueko 12etan.

Kontzertua

PUNK-ROCK KONTZERTUAK, Lès Affectés (Frantzia) eta Kaos Kooperativ (Irun). Sustrai tabernan, 19:00etan.

Kontzertua

LEGAZPIKO SANTIKUTZ abesbatzaren emanaldia Alboka abesbatzak duen trukaketa programaren barruan. Brigitarren komentuan 19:30ean.

Ostirala, 17

Kontzertua

JOKIN GOENAGA akordeo jolearen emanaldia Xpression eta Udalaren hitzarmenaren barruan. Kulturetxeko kafetegian, 20:00etan.

Kontzertua

YEMAMAH (Musika Brasildarra, Bossa, Pop...) Jalgi kafe-antzokian, 23:00etan.



The Ventures taldearen omenez

Los Benturos taldearen emanaldia. The Ventures taldea Washingtonen sortu zuten Don Wilsonek eta Bob Boglek; surf rocka eta rock instrumentala jotzen zuten. Taldea oso ezaguna egin zen bere klasiko batzuegatik, horien artean, "Wipe Out" abestia eta James Bond filmetako 007. Mundu mailan 100 milioi diska inguru saldu dituzten.

OSTIRALEAN, HILAREN 3AN

ABEND KAFE-ANTZOKIAN, GAUEKO 12ETAN, DOAN.

Zabaletako Jaiak

ZABALETA AUZOLAN ELKARTEA

Ostirala, 3

18:00: haurren antzerkia eta ondoren merienda.
19:00: Porrotx pailazoarekin txupinazoa.
20:00: Teresa sorginaren jai-siera auzoko trikitilariekin.
22:00: dantza garaikidearen emanaldi handia.
23:00: Xumela abesbatzaren emanaldia eta ondoren Itzar-tu eta Ahuen taldeak.

Larunbata, 4

09:00: diana.
11:30: J. Migel Aranzadiren oroimenez IV. Eskoba txap.
15:30: J. Migel Aranzadiren oroimenez IV. Mus txap.
16:00-19:00: Irrien lagun-puzgarri festa.
17:00: Toka txapelketa.
19:00: Hipo eta Tomax.
23:00: bertso saioa: Ane Labaka, Uxue Alberdi, A. Otamendi, Julio Soto eta gai jartzen Muñoa.
00:00: Gaueko Itzalak, Eratu eta talde sorpresa.

Igandea, 5

Denok baseritarrez jantzita

09:00: diana eta auzo garbiketako txapelketa.
11:00: Landaberri ikastolako dantza saioa.
12:45: proba mistoa eta ondoren Ildi proba.
14:30: herri bazkaria eta ondoren erromeria.
18:00: haurren herri kirolak.
20:30: Teresa Sorginari agurra eta azken traka.

IX. Antzerki eta Dantza Astea

EUSKARAZ, KULTURETXEAN KUKUKA ESKOLA

Astelehena, 6

19:00: Goazen jolastera, Mimo bat naiz eta Burugorri institutoan, HH eta LH.

Asteartea, 7

19:00: Hollywoodeko izarak eta Eskale musikariak, LH 4.

Asteazkena, 8

19:00: Bizko-bizko, txoo!, Txanpon bila New Yorken eta Erasoak akabo, LH 6.

Osteguna, 9

19:00: Klown abenturak, LH 5.

Eskutitza

I. Gazte Topaketak iraultza gure baitan hasten da!

Lelo honen pean ospatu zen abiapuntu dugun Matxinsalto eguna Sorraluzen. Gazte problematikari aurre egin, iraultzari buruz eztabaidatu eta gazteriaren kontzientzia kolektiboa berreskuratzea izanik helburu eta koherentzia, elkarlana eta autogestioa ardatz harturik Euskal Herriko gazte mugimenduaren topaleku izan zen ekintza ezberdinez bateriko egun hau.

Gazteok argi daukagu gaur egungo errealtatea ez dugula maite eta ondorioz sistema kapitalista patriarkar honen aurrean alternatibak sortzeko borondate osoa dugu.

Ez dugu nahi kontsumo hutsera bideratutako gazteria, lan prekarioduna, etxebizitza duinik gabekoa, emakumearen zapalkuntza sistematikoaren aurrean jarrera pasiboduna... Kalea berreskuratuko duen gazteria nahi dugu, berdintasunean biziko dena, ameslaria, konprometitu, borrokalaria, euskalduna...

Hau ordea ez da egun batetik bestera egiten eta herriz herri aurrera eraman beharreko borroka da. Lasarten ez dugu biltzeko espazio duinik, aisialdi mugatu eta telegidatua eskaintzen digute, erraustegi baten toxinak arnasarazi nahi dizkigute...

Horregatik, behar beharrezkoa dugu gazteok, kolektibo gisa, elkartu eta arazoei erantzun bateratu eta indartsuago bat ematea. Gazte mugimendua berpiztu eta koherentzia, elkarlanetik eta autogestiotik lanari ekitoko garaia da.

Horretarako, ekainak 3, 10 eta 11ean Lasarteko gazte topaketak antolatuta ditugu; gazte guztiak bildu eta denon artean aurrera egingiteko.

Lasarte-Oriako Marasma Saretzen

Rocioko erromeria

SEMBLANTE ANDALUZ ELKARTEA

Igandea, 5

11:30ean: MEZA ROZIEROA Arantzazuko Amaren elizan eta bertan Semblante Rociero abesbatzak abestuko du. .

12:30ean: ROCIOKO AMAREN IRUDIAREN DESFILEA Atsobakar

parkera arte. Herriko kaleetan zehar.

13:30ean: Patata tortilla I. Lehiaketa egingo da. Sari banaketa 20:00etan izango da. Atsobakar auzoan.

Ekitaldiak

14:00etan: OHOREZKO ARDOA eskainiko diete agintariei eta gonbidatutako etxean lehen-

dakariei. Atsobakar auzoan.

17:00etan: SEMBLANTEKO TALDEEN EMANALDIA bertaratutako enomenez. Atsobakar auzoan.

Erromeria

18:00etan: SEBILLANAK dantzatzeko aukera izango dute bertaratutako guztiak. Atsobakar auzoan.

Oharrak

I. Gazte Topaketak

Lasarte-Orian I. Gazte topaketak egingo dira ekainaren 3, 10 eta 11ean, gazte lokalean. Ekainaren 3 eta 10 ostiraletan 18:00etan izango dira topaketak eta ekainaren 11a larunbatean 10:00etan.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, 4 bizikleta, 3 erloju, urrezko pultsera, eraztuna, diru zorroa, neskaren esku-muturrekoa, 2 zilarrezko pultsera, 2 betaurreko graduatu bata zorroarekin, 2 telefono mugikorrek bata poltsarekin, haur zamarra, laruzko zamarra eta belarriritako batzuk. Gauza hauen jabeak dire-

la egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte Udaltzainen Bulegoan, 09:00-13:00.

Mahai jokotan izena ematea

Biyak-Bat erretiratuen elkarteak jakinarazi nahi du San Pedroko jaietako mahai joko eta mugimenduzko jokoak ekainaren 8tik aurrera hasiko direla. Hauetan parte hartu nahi duenak, maiatzaren 25etik aurrera egoitzako bulegotik pasa behar du izena emateko. Inskripzio epea ekainaren 3an itxiko da.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Yoana Figueras Diseinatzaile Grafikoa

“Irabaziko nuela sentitzen nuen”

■ Horizontes Latinos, Zabaltegi eta Zinemaldiko kartelek lasarteoriatar baten sinadura daramate
 ■ Yoana Figueras 26 urteko herritarrak nazioartean aitortzea lortuko du Donostiako sariari esker

Nazioarte mailan garrantzi handiko festibala da Donostiako Zinemaldia. Zine zuzendari, aktore, aktorea... pertsona ezagunetz betetzen da Gipuzkoako hiriburua irailaren erdialdetik amaierara bitartean. Cannes eta Berlingalderen atzetik Zinemaldia dago festibal nagusien artean. Eta Zinemaldia hurbiltzen ari dela adierazten diguten aurtengo kartelen sortzailea lasarteoriatarra da. Oscar Marine izan da azken lau urteotan kartelen egilea, baina aurten lehiaketa publikoa egin da eta Mara-Mara elkarteak irabazi du, Yoana Figuerasek egindako proposamenarekin. Hilabetearen Horizontes Latinos, Zabaltegi eta Zinemaldiaren sekzio ofizialeko kartelak egin ditu. Lan gogorra baina aldi berean saria jaso duena.



ITXASO MORENO

Yoana Figueras duela 26 urte jaio zen Lasarte-Orian. Diseinu Grafikoa ikasi, jarduera horretan lan egiten hasi, duela bi urte Mara-Mara taldean sartu eta horretan dihardu, elkarte honetako Bi tanta sailean, diseinu lanetan murgilduta. Aurten Zinemaldiko kartelak egiteko lehiaketan parte hartu dute eta bere diseinua irabazte izan denez, bera izango da 2011. urteko Zinemaldiaren kartelen egilea.

Nolatan aurkeztu zinen Zinemaldiko kartel lehiaketara?
 Guri normalean lehiaketa publikoetan parte hartzeko oinarriak iristen zaizkigu eta Zinemaldiko iritsi zitzaizkigun. Hasieran erronka zaila iruditu zitzaigun. Horizontes Latinos, Zabaltegi eta Zinemaldiko kartelak egin behar ziren, lehiaketan parte hartzeko pack-a bidali behar zen. Normalean bakarrera aurkezten gara. Hiru irudi on bilatu behar genituen eta hiruak gustukoak izan behar ziren epaimahaikideentzat.

Horizontes Latinos sekzio-tik hasi ginen: ideia asko gustatu zitzaigun, ondo geratu zen eta orduan animatu ginen beste bi sailerako kartelekin.

Zer proposatu duzue Horizontes Latinos atalerako?
 Zine latindarra indartsu azaleratzen ari da orain, beraz, kontraste handiko irudia eman nahi genuen. Pertsona bat da, begirada sakonarekin, hodeietara begira... niretzat irudi gogor eta sendoa da, Horizontes Latinos sailean eskaintzen den zinema bezalakoa. Erabili ditugun koloreak oso esanguratsua dira.

Ondoren Sekzio Ofizialekoa, asko kosta al zitzaizuen?
 Aukera asko izan genituen esku artean, baina azkenean lortu genuen guri gehien gustatu zitzaigun kartelak irabaztea gainera. Berez, atal bakoitzera, kartel ezberdinak aurkeztu zitzekeen.

Maleta bat irudikatuz, zer sinbolizatu nahi izan duzu?
 Nazioarteko festibala da, eta hitz horrek ekarri zidan maleta burura: Donostiako Zinemaldi internazional eta garrantzitsuak.

Bi gauza irudikatu nahi nituen. Batetik, zinema munduko jende ugari hurbiltzen dela, hau da, hona etortzeko egiten duten bidaia islatu nahi nuen. Jakina, euren maleta hartu eta Donostiara zineaz disfrutatzea datoz. Eta bestetik, irudimenezko bidai bat ere bai. Film bat ikusten dugunean gure bizitza ahaztu egiten dugu eta beste mundu batean, beste baten bidaian sartzen zara. Horregatik, maleta, bi bidai.

Azkenik, Zabaltegi sekzioa. Zer zenuen buruan kartela sortzerakoan?
 Sortu dugun kartelean Igeldoren perfla bertikalean kokatu dugu. Igeldo zuzen jartzen baduzu, jende guztiak berdina ikusten du, baina bertikalki jarrita interpretazio ezberdinetarako parada ematen du. Leku konkretu bati buruzko ikuspuntu ezberdinak.

Kartel hau egiten denbora asko eman al zenuen?
 Zabaltegi irudi nahiko zehatza izan du beti, ohikoa izan da Z-ren erabilera. Nik buelta bat eman eta kontent naiz emaitzarekin. Gainera hiru kartelak oso harrera ona izan dute eta horrek poztu egiten zaitu.

Nola hartu zenuen garaipenaren albisteak?
 Hunkituta jaso nuen albisteak. Lankideei esaten nien nik oso sentazio onak nituela.

Kartelak entregatzeko epea ostiral batean amaitzen zen eta astelehenean ematen zuten irabazlearen izena. Astelehenean urduri nengoen, ez zutelako deitzen, baina azkenean Jose Luis Rebordinos, Zinemaldiko zuzendariak deitu eta irabazlea nintzela esan zidan.

Sari hau oso garrantzitsua da niretzako. Azken lau urteetan Oscar Marinek egin ditu kartelak. Artista ezaguna da eta berari erreleboa hartzea oso garrantzitsua da niretzat.

Lehenengo aldiz egin da lehiaketa publikoa, eta irabaztea ikaragarri izan da. Pertsonalki ilusio handia egin zidan. Gainera jakindaartzelako, Madrilgo, eta atzerriko agentziak aurkezten zirela...

azkenean Donostia ondoko batek irabazi du, lasarteoriatar batek.

Kontent nengoen bidalita-ko pack-arekin eta aukera handiak genituela uste nuen. Gainera sari honek oso publikitate ona egingo digu. 6.000 euro ere irabazi ditugu, baina publikitateak da onurarik handiena. Zinemaldia zine mailan festibal garrantzitsua da, nazioarte mailakoa gainera.

Mara-Maran ari zara lanean, noren izenean aurkeztu dituzue kartelak?
 Nik Mara-Mara taldean egiten dut lan, eta horren barruan “Bi tanta” ataleko diseinu sailean. Kartelak nire izenean aurkeztu ditut, baina agentziako langile bezala.

Zenbat denbora daramazu Mara-Maran?
 Bi urte eta lau hilabete bete dira jada gutxi gorabehera talde honetan sartu nintzenetik. Diseinu saila gerora sortu zen. Enpresaren irudia sortzeko sartu nintzen, irudia gustatzen hasi zen eta bezeroak etortzen. Eskaria zegoenez, diseinu departamentua sortzea erabaki zen eta horren barruan hasi nintzen lanean.

Zuk zer ikasi duzu?
 Diseinu grafikoa ikasi nuen, bi urteko gradua. Praktikak egin nituen enpresa lau urte aritu nintzen lanean. Ondoren, Mara Mara sortu eta bertan hasi nintzen lanean. 26 urterekin, gauza garrantzitsu bat irabazi dut, ezin naiz kontentago egon.

Behin lehiaketa irabazita, orain gogor egin beharko duzu lan, ezta?
 Erlojuaren kontra ari gara lanean, hornitzaileei egin behar diren aplikazio guztiak bidaltzeko. Garaiz gabiltza oraindik, baina ikusi beharko da. Banderatxoak, dossierak, liburuak, argazkiak, benetako-tze-agiriak, Kursala... gauza asko ditugu esku artean, lan asko. Orain egin behar ditugun aplikazio gehienetan espeziez lantzen dugu, beste proiektu batzuetan ere egin ditugulako, baina Kursala atontzea berria izango dago. Hala ere pozik egiteko moduko lana izango da oraingoa ere.

Zinemaldiaz gain beste proiekturik ba al duzue esku artean?
 Bi Tantan diseinuarekin zerikusia daukan gutzia lantzen dugu. Une honetan enpresentzat web orrialdeak egiten ari gara, Aralarreko parke nazionalako kartelak ere guk egingo ditugu, enpresen irudi korporatiboak ere lantzen dugu... Gutaz gehiago jakin nahi duenak, www.bitanta.com-en aurkitu gaitzake.

Beste saririk irabazi al duzue?
 laz beste hiruzpalau lehiaketara aurkeztu ginen eta horien artean Donostiako Euskal jaiei zegokiona irabazi genuen. Kirol patronatuaren egutegiak egiteko aukera ere guri eskaini ziguten. •

